

2023an, Euskal AEren esportazioek % 15,5 egin dute gora

Euskal AEk Errusiara eginiko esportazio kopuruak % 59,8 egin du behera, eta inportazioenak, % 56,3

Euskal AEko ondasunen esportazioek (2.923,5 milioi euro) % 15,5eko igoera izan dute 2023ko otsailean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta; igoerak izan dira bai produktu energetikoetan (% 45,8) bai ez-energetikoetan (% 13,9), Eustatek prestatutako datuen arabera.

Fluxu inportatzaileak (2.182 milioi) pixka bat egin du gora, % 0,9, inportazio energetikoen beherakadaren ondorioz, bai balioan, euroak (-% 12,4), bai pisuan, tonak (-% 15,2). Produktu ez-energetikoek gora egin dute balioan (% 4,8), baina % 8,2 behera, tona kopuruari dagokionez.

2023ko otsailean, merkataritza-saldo positiboa izan da (741,5 milioi euro) eta estaldura-tasa % 134,0koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Otsaila 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Otsaila			Otsaila		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.530.944	2.923.532	15,5	2.161.689	2.182.005	0,9
ENERGIAZKO GAIAK	128.513	187.335	45,8	482.919	422.995	-12,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.402.432	2.736.197	13,9	1.678.770	1.759.010	4,8
URTEKO METATUA	4.772.084	5.643.953	18,3	4.174.441	4.556.441	9,2
ENERGIAZKO GAIAK	295.355	354.764	20,1	925.408	1.051.926	13,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	4.476.729	5.289.189	18,1	3.249.034	3.504.515	7,9
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	739.167	949.207	28,4	503.745	556.702	10,5
URTEKO METATUA	1.475.379	1.878.242	27,3	943.899	1.006.866	6,7
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.035.505	1.118.287	8,0	1.198.925	1.165.103	-2,8
URTEKO METATUA	1.935.844	2.159.356	11,5	2.366.787	2.651.551	12,0
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	756.272	856.039	13,2	459.020	460.200	0,3
URTEKO METATUA	1.360.860	1.606.355	18,0	863.756	898.024	4,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoek hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte esportazioetan, eta igoera % 28,4koa izan da Araban, % 8,0koa Bizkaian eta % 13,2koa Gipuzkoan. Bizkaiko esportazio ez-energetikoen % 2,8 egin dute gora; Arabakoek, % 28,4, eta Gipuzkoakoek, % 13,0. Esportazio energetikoen, Bizkaiaren kasuan, % 45,4 egin dute gora.

Arabak, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira hilabete honetan ere: “*Garraio-materiala*” (guztizkoaren % 57,9), % 42,0ko igoerarekin (549,8 milioi esportatu, guztira), “*Metalak eta haren manufakturak*” (urte arteko % 13,4ko igoera) eta “*Plastikoak eta kautxua*” (% 34,9ko igoera).

Gipuzkoan gora egin dute “*Material, makina eta aparatu elektrikoen*” salmentek (% 19,2), bai eta “*Garraio-materialenak*” (% 12,6) ere. Igoera handia izan da, era berean, “*Landareen erreinuko produktuetan*”; muga-zergen atal horrek, 2022ko apiriletik, hilero, 13 milioi eurotik gorako esportazioak ditu, eta, aurtengo otsailean, 27,1 milioiokoa.

Bizkaian, gora egin dute “*Produktu mineral eta energetikoen*” esportazioek (% 43,2), “*Produktu kimikoenak*” (% 32,3) eta “*Koipe eta olioarenak*” (% 29,9).

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko otsaila

2023ko otsailean, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) eratu dute Euskal AEn bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 50,7 hartzen dute (1.481 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 64,5 dagokio.

Galiar herrialdera bideratutako **esportazioak**, hil honetan, 459 milioi eurokoak izan dira, eta, haien artean, “*Petrolioaren olio finduenak*” nagusitu dira (53,6 milioi), bai eta “*Kautxuzko pneumatiko berrienak*” (31,9 milioi) eta “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarrienak*” (30,9 milioi) ere; guztira, 657 produktu-mota esportatu dira.

Alemaniak 442 milioi esportatu kontzentratzen ditu, eta honako hauek nabarmentzen dira: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (97,3 milioi), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (88,8 milioi) eta “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarrienak*” (35,2 milioi); guztira, 400 produktu-mota izan dira.

Estatu Batuak –219 milioirekin– hirugarren posizioan daude, eta esportazioak honako hauetan kontzentratzen dira: “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (38,3 milioi), “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (34,5 milioi) eta “*Biodieselak eta haren nahasteak*” (27,7 milioi); 330 produktu-mota izan dira.

Erresuma Batuak 186 milioi esportatu kontzentratzen ditu, eta, haietatik, 14,9 “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilei*” dagozkie, 11,9 milioi “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilei*”, 11,8 milioi “*Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne*” produktuari; 422 arantzel-partida izan dira.

Italiak 175 milioi euro esportatu kontzentratu ditu, eta honako hauek nagusitu dira: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (19,4 milioi), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (14,9 milioi) eta “*Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne*” (11,7 milioi).

Errusiara eginiko esportazioen kopuruak % 53,6 egin du behera, eta 18,6 milioi izatetik 8,6 milioi izatera igaro da.

Gure **inportazioen** % 58, hil honetan, EB-27tik etorri dira. Herrialde garrantzitsuenen artean, nabarmentzekoa da Alemaniatik inportatutakoa (366 milioi), funtsean “*Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak*” (54,2 milioi) eta “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (47,4 milioi). Era berean, honako hauek nabarmentzen dira: Frantzia, 201 milioirekin, “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” izanik lehen posizioko produktua, 35,2 milioirekin, 702 produktutarako, eta Txina, 181

milioirekin, kontuan hartuta haietatik 31,9 milioi *“Metagailu elektrikoena”* direla, 20,7 milioi *“Kokea, betuna eta petrolio-olioen edo mineral bituminosoaren gainerako hondakinena”* eta 8,5 milioi *“Biodiesel eta haren nahasteena”*. Herbehereak ere foku inportatzaile garrantzitsua dira, 142 milioirekin, batez ere *“Petrolioaren olio finduak”* (56,2 milioi).

Errusiaren kasuan, % 91,2ko atzerapena egon da; 2022ko otsailean 123,1 milioi izan ziren eta, 2023ko hilabete berean, 11,6, eta, haietatik, bat ere ez da izan *“energetikoa”*.

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 130 milioi Amerikakoak (% 30,8) eta, haietatik, 76 milioi Brasilekoak eta 54 milioi Trinidad eta Tobagokoak; 130 milioi Afrikakoak (% 30,7) eta, haietatik, 71 milioi Angolakoak eta 59 Nigeriakoak; 79 milioi Asiakoak (% 18,7) eta, haietatik, 37 Irakekoak, 22 Arabiar Emirerri Batuetakoak eta 21 milioi Txinakoak; 63 euro Europatik (% 15,0) eta, haietatik, 59 Herbehereetatik, 2 Belgikatik eta milioi erdi baino pixka bat gehiago Norvegiatik eta beste horrenbeste Alemaniatik. Era berean, 20,5 milioi (% 4,8) inportatu dira *“Zehaztu edo identifikatu gabeko herrialde eta lurraldeetatik”*, normalean itsas zabalean eginiko transakzioetatik.

Merkaturatutako produktuak, 2023ko otsaila

Xehetasunak ikusteko, 2023ko otsailean ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 42,2 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.234,5 milioi eurokoa izan da.

Talde horren barruan, esanguratsuak dira honako partida hauen hazkuntza-tasak, besteak beste: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (% 67,4 eta 267,7 milioi esportatu), *“Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak”* (% 58,0 eta 68,6 milioi esportatu). *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (% 43,8 eta 229,2 milioi), *“Petrolioaren olio finduak”* (% 42,2 eta 164 milioi) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (% 25,9 eta 140,8 milioi esportatu).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.530.944	2.923.532	100,0	15,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	159.878	267.659	9,2	67,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	159.463	229.241	7,8	43,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	179.772	174.135	6,0	-3,1
Petrolioaren olio finduak	115.309	163.991	5,6	42,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	111.883	140.828	4,8	25,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	43.396	68.555	2,3	58,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	53.986	51.233	1,8	-5,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	56.431	51.026	1,7	-9,6
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	29.811	48.562	1,7	62,9
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	30.785	39.296	1,3	27,6
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	31.801	35.471	1,2	11,5
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	39.516	33.588	1,1	-15,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	30.188	33.138	1,1	9,8
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.307	33.045	1,1	102,6
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	16.645	32.881	1,1	97,5
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	43.701	26.819	0,9	-38,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	29.045	26.129	0,9	-10,0
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	49.274	25.813	0,9	-47,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	7.077	25.585	0,9	261,5
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	19.963	25.371	0,9	27,1
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	20.863	24.640	0,8	18,1
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	18.537	23.711	0,8	27,9
Landu gabeko aluminioa	26.081	22.748	0,8	-12,8
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	12.271	21.457	0,7	74,9
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	15.391	21.372	0,7	38,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* (guztizkoaren % 11,1) partidak, % 34,3ko jaitsiera izan du, 2022ko hil berean baino 126,7 milioi gutxiago, 242,8 milioiko guztizko erosketetan.

Joera negatibo hori beste bi arantzel-partida garrantzitsutan ere izan da: *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak”* (–% 50,7 eta 55,8 milioi gutxiago aurreko urteko hil berean baino; guztira, 54,2 milioi) eta *“Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera”* (–% 47,2 eta 37,7 milioi gutxiago aurreko urtean baino).

Berriz, gora egin dute, nabarmen, “*Petrolioaren olio finduek*” (% 4.160,7, eta, haietatik, 101 milioi inportatzen dira, funtsean gasolioa eta fuela), “*Enbolodun (pistoi) motor alternatiboak eta motor birakariak, txinparta (eztanda) bidez piztekoak*” (% 474,1 eta 32 milioi inportatu) eta “*Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk*” (% 77,2 eta 45,5 milioi).

ARABA. Esportazioak 2023ko otsailean

Araban esportazioek % 28,4 egin dute gora, hil horretan honako hauek izan duten igoera handiaren ondorioz: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 68,8 egin dute gora; 265,9 milioi esportatu, guztira), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (% 44,7 eta 229 milioi), “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (% 76,5 eta 60,4 milioi esportatu), eta “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 66,4 eta 59,8 milioi esportatu).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	739.167	949.207	100,0	28,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	157.537	265.859	28,0	68,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	158.252	229.015	24,1	44,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	34.240	60.427	6,4	76,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	35.948	59.830	6,3	66,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	51.743	38.694	4,1	-25,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.796	16.778	1,8	-15,2
Ardoa, mahats freskoarena	17.488	16.610	1,7	-5,0
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	3.317	10.446	1,1	214,9
Metal arruntzeko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	11.870	9.959	1,0	-16,1
Izozkiak, kakaoarekin barne	8.804	7.921	0,8	-10,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatizaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko otsailean

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 8,0 egin dute gora. Hamar partida nagusietatik, esportazioari ekarpenik handiena egiten dietenak honako hauek dira: “*Petrolioaren olio finduak*” (161,4 milioi euro esportatu eta urte arteko % 41,8ko hazkuntza), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (80,5 milioi esportatu), “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (66,9 milioi) eta “*Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak*” (46,8 milioi), besteak beste.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.035.505	1.118.287	100,0	8,0
Petrolioaren olio finduak	113.796	161.391	14,4	41,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	75.531	80.474	7,2	6,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	66.350	66.858	6,0	0,8
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	27.091	46.772	4,2	72,6
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	39.516	33.586	3,0	-15,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	26.296	33.459	3,0	27,2
Biodesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	16.645	32.881	2,9	97,5
Transformadore elektrikoak, bihurtzailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	18.062	23.448	2,1	29,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	18.105	22.166	2,0	22,4
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	15.094	21.134	1,9	40,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatizaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko otsailean

Gipuzkoako esportazioek % 13,2 egin dute gora, eta haien partida nagusien artean honako hauek nabarmentzen dira: “Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak” (% 142,2), “Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.” (% 249,6) eta “Seinaleztapen-aparatu elektrikoak (mezuen transmisiokoak izan ezik), segurtasunekoak, kontrolekoak edo agintekoak” (urte arteko % 9.940,2ko hazkuntza).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	756.272	856.039	100,0	13,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	61.678	68.582	8,0	11,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	52.456	46.748	5,5	-10,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.749	35.682	4,2	-12,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	12.432	30.112	3,5	142,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	49.274	25.813	3,0	-47,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.	6.081	21.256	2,5	249,6
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	12.266	20.267	2,4	65,2
Seinaleztapeneko (mezuak transmititzeko aparatu elektrikoak izan ezik), segurtasuneko, kontroleko edo aginteko aparatu elektrikoak	179	17.947	2,1	9.940,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	13.149	17.146	2,0	30,4
Metal arruntzko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	17.104	17.075	2,0	-0,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatizaren estatistika

2023KO METATUA (URTARRILA-OTSAILA): kanpoko saldoak 1.087,5 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 123,9koa da

2023ko lehen bi hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 18,3ko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi berean baino 872 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 5.644 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaia egin dio ekarpenik handiena, 2.159 milioikoa (guztizkoaren % 38), gero Arabak (1.878 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (1.606 milioi).

Arabako esportazioek urte arteko hazkuntzarik handiena izan dute (% 27,3), 2022an baino 402,9 milioi gehiago. Gipuzkoan, % 18,0koa izan da hazkuntza (245,5 milioi gehiago) eta, Bizkaian, % 11,5ekoa (223,5 milioi gehiago).

Esportatutako produktu-mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai “Produktu energetikoenek” (59,4 milioi gehiago), bai “Produktu ez-energetikoenek” (812,5 milioi gehiago 2022ko aldi bereko metatua baino).

Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 42,5 kontzentratzen dute, 2.399 milioiko zenbatekoarekin.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”, aldi honetan, Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (575,4 milioi esportatu eta % 48ko hazkuntza-tasa).

Hazkuntza handiena izan duten produktuak honako hauek izan dira: “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 91,2 eta 132,3 milioi) eta “Biodiesela eta haren nahasteak” (% 241,0 eta 56,8 milioi).

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”, “Kautxuzko pneumatiko berriak” eta “Petrolioaren olio finduak”; % 26,6ko, % 24,1eko eta % 18,2ko aldakuntza positiboak izan dituzte, hurrenez hurren.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Otsaila 2023

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	5.643.953
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	575.359
2	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	423.926
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	346.052
4	2710	Petrolioaren olio finduak	316.724
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	262.147
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	132.340
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	89.798
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	89.432
9	1518	Erabilerak tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	85.091
10	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	78.102
11	9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	75.424
12	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	73.436
13	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	72.243
14	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaletarako	62.076
15	3826	Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	56.767
16	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	53.163
17	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	52.231
18	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	50.048
19	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	49.355
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	47.745
21	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	47.562
22	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	47.229
23	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	46.394
24	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	40.245
25	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	36.743

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Frantzia izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (912 milioi), eta, ondoren, gertutik, Alemania (899 milioi) eta, urrunago, Estatu Batuak (412 milioi), Erresuma Batua (360 milioi) eta Herbehereak (329 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 52 hartzen da.


Herrialde horiei dagokien estaldura-tasa, Frantziaren kasuan, % 235,0ekoa da, % 136,5ekoa Alemaniaren kasuan, % 131,2koa Estatu Batuen kasuan, % 495,4koa Erresuma Batuen kasuan eta % 154,1ekoa Herbehereetan. Hori horrela, urtea ongi hasi da; izan ere, eutsi egin diegu estaldura-tasa positiboari eta % 130etik gora, esportazio-rankineko lehen hamar herrialdeen aldean.

Euskal AErako **inportazioen** metatua 4.556 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori, urte artean erkatuz gero, 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 382 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 9,2ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (2.651,6 milioiko balioa duten inportazioak ditu) % 12,0ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 284,8 milioi gehiago. Araban ere inportazioek gora egin dute, % 6,7, 63 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, % 4,0ko igoera izan dute, igoera txikiagoa, eta 34 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 1.006,9 eta 898,0 milioi euro izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioa aurreko urteko aldi berekoa baino % 13,7 handiagoa izan da, eta “Produktu ez-energetikoena”, % 7,9.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2023ko lehen bi hiletan, 1.087,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar (% 123,9).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

URTEBETE ERRUSIAREN ETA UKRAINAREN ARTEKO GERRAK

Ikuspuntu estatistikotik, bi aldi aldera daitezke: gerraren aurreko hamabi hileko aldia (2021eko martxotik 2022ko otsailera) eta 2022ko otsailaren 24an gatazka hasi zenetik igaro den aldia, alegia, 2022ko martxotik 2023ko otsailera bitartekoa, bi hilabeteak barne. Hala, gerrak kanpo-merkataritzan ekarri dituen ondorioak egiazta daiteke.

Aurreko premisan oinarrituta, lehendabizi Euskal AEtik eginiko **Errusiako inportazioak** aztertuko ditugu. Hori horrela, haietan jaitsiera handia izan dela esan dezakegu; izan ere, % 56,3ko tasa negatiboa erregistratu da. Gerraren aurreko hamabi hileko aldian, 1.453,4 milioi euro inguruko inportazioak izan ziren, eta haiek, funtsean, produktu energetikoenak (1.243,8 milioi) izan ziren. Gerraren lehen urtean, baina, inportazio horiek behera egin zuten, eta 634,5 milioikoak izan ziren; kasu horretan, produktu energetikoei 522,0 milioi kontzentratu zituzten.

Gerraren aurreko urtean gehien inportatu ziren produktuen artean, bigarrena *“Metal arruntak eta metal horien manufakturak”* da; orduan, 115,4 milioi izan ziren eta, gatazkan daramagun urtean, 51,9 milioi (–% 55,0).

Hirugarren produktua *“Materia plastikoak, kautxuak eta haien manufakturak”* da, eta jaitsiera % 76,2koa izan da, 48,5 milioitik 11,5era. Azken produktu esanguratsua *“Industria kimikoen edo lotutako industriaren produktuak”* da, eta % 43,4 egin du atzera; 13,5 milioiko inportazioak izan ditu eta, aurreko urtean, 23,9koak.

Merkataritza-fluxu horretan, hazkuntza esanguratsu bakarrak honako produktu hauetan izan dira: *“Animalia- eta landare-jatorriko koipeak, olioak eta argizariak”*, 3,4 milioikoak izatetik 17,3koak izatera igaro baitira (% 407,4) eta *“Zura, kortxoa, espartzugintza, saskigintza eta haien manufakturak”*, % 67,7 egin baitu gora (6,1 milioitik 10,3ra).

Errusiara eginiko esportazioek, kontuan hartutako aldi horretan, % 59,8ko beherakada izan dute; 228,9 milioikoak izan ziren gerra aurreko aldian eta 92 milioikoak gerraren lehen urtean. Bi aldi horietan esportatu den produktu nagusia *“Makinak, materiala eta aparatu elektrikoak; haien zatiak eta osagarriak”* izan da, nahiz eta % 30,5eko beherakada izan duten, 86,5 milioitik 60,1erakoa. Beherakada are handiagoa da garrantziaren arabera hurrenkeran ondoko posizioan dagoen produktuan, *“Garraio-materialean”*, 60,4tik 11,7 milioira egin baitu (–% 80,7). Atzera egin du % 91 *“Materia plastikoak, kautxuak eta haien manufakturak”* produktuak (52,9 milioitik 4,8ra), % 87,5 *“Industria kimikoen edo lotutako industriaren produktuak”* (11 milioitik 1,3 milioira) eta % 23,6 *“Metal arruntak eta haien manufakturak”* produktuak (9 milioitik 7 milioira).

Hazkuntza esanguratsua honako produktu honen esportazioetan baino ez da izan: *“Harri, igeltsu, zementu, amianto, mika eta antzeko gaien manufakturak; zeramika-ekoizkinak; beira eta beirazko manufakturak”*, % 49,6koa izan da, 2,6 milioitik 3,9ra igaro baita.

Ukrainako inportazioak Errusiakoak baino nabarmen baxuagoak dira; izan ere, azken horien % 10 inguru baino ez dira. Ukrainatik hiru produktu inportatzen dira, funtsean: *“Animalia- eta landare-jatorriko koipeak, olioak eta argizariak”* produktua, 101,5 milioitik 30,7 milioira behera egin duena (–% 69,8); *“Metal arruntak eta haien manufakturak”*, % 71,9ko jaitsiera izan duena (79 milioitik 22 milioira), eta *“Zura, kortxoa, espartzugintza, saskigintza eta haien manufakturak”*, 2,5 milioitik 1,7ra igaro dena (–% 32,3).

Ukrainara eginiko esportazioek ere beherakada nabarmena izan dute; izan ere, gerra aurreko aldian 41 milioikoak ziren eta, gerran, 26 milioikoak baino ez (–% 36,1). Gerra aurreko aldian Errusiakoen % 18 izatetik gerran % 28 izatera. Bi produktu nabarmentzen dira merkataritza-fluxu horretan: *“Garraio-materiala”*, zeinak 11,3 milioitik 7,3ra egin baitu behera (–% 35,9) eta *“Makinak, materiala eta aparatu elektrikoak”*, zeinak 11,8 milioitik 6,1era egin baitu (–% 48,1). Produktu horiek herrialdera egiten ditugun esportazioen erdia dira, nabarmen, baina, era berean, nolabaiteko pisua

dute, batetik, “*Materia plastikoak, kautxua eta haien manufakturak*” produktuak, zeinak % 56,5 egin baitu gora, 3,7 milioitik 5,8ra, eta, bestetik, “*Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrietako produktuak*”, % 84,3 egin baitu gora, 1,7 milioitik 3,1era.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62